

IRAKURGAIA

Euskaraz inprimatutako lehen liburua Paristik Baionara ekarri dute, aldi baterako

Euskaraz inprimatutako lehen liburuaren jatorrizko ale bakarra Euskal Herrira ekarri dute, aldi baterako bada ere. Bernat Etxeparek 1545ean idatzitako *Linguae Vasconum Primitiae* olerki-bilduma originala ikusgai dago Baionako Euskal Museoan. Ale hori Frantziako Liburutegi Nazionalean gordetzen dute, baina orain herritarrek gertuagotik ikusi ahal izango dute, hiru hilabetez (urtarrilaren 11ra arte) zabalik izango den erakusketan.

Lehen aldia da Etxepareren liburua Ipar Euskal Herrira ekarriko dutena –2011n Gasteizen jarri zuten ikusgai, Eusko Legebiltzarreko erakusketa-aretoan–, eta lehen aldia hainbeste denboraz, gainera.

Larunbatean egin dute erakusketaren inaugurazioa eta bertan izan dira elkarlanean aritu diren erakundeetako ordezkariak, hala nola Euskal Museoko zuzendari Sabine Cazenave, Etxepare Euskal Institutuko zuzendari Irene Larraza eta Frantziako Liburutegi Nazionaleko liburu bakanen erreserbako zuzendari Jean-Marc Chatelain. “Zuek nik baino hobe dakizue zerk egiten duen baliotsu liburu hau, nik, tamalez, ez baitut euskara menderatzen. Baina, uste dut liburu honek euskara hizkuntza literario gisa baieztatzen duela eta izateko arrazoi guztia zuela”, esan du Chatelainek bere hitzartzean.

Liburuak euskararen historian mugarri bat ezarri zuela diote adituek. Biltzen dituen olerki-sorta profano eta erlijiozkoen gain, euskarari gorazarre egiten dieten “Sautrela” eta “Kontrapas” testuak ere badaude: azken horrek dakar “euskara, jalgi hadi dantzara” pasarte ezaguna. Etxeparek liburuan bertan aitortzen du euskara “mundu guzira” zabaltzeko idatzi zuela, asmatu berria zen inprentaren laguntzaz.

Egitarau berezia, liburuaren kari

Erakusketan, benetako liburuaz gain, aukera dago *Linguae Vasconum Primitiae*aren edizio digital bat orrialdez orrialde ikusteko. Euskal Museoko dokumentalista eta erakusketaren arduradun zientifiko Audrey Farabosek azaldu duenez, “aukera eman nahi diogu jendeari euskaraz idatzitako lehen liburuaz gehiago jakiteko”. Horretarako, Baionako Mediatekak utzitako beste liburu baten alea paratu dute ondoan: okzitaniaraz eta frantsesez idatzitako zuzenbidearen eta ohituren gaineko liburua da, garaiko testuingurua hobeto ulertzen laguntzen duena.

Farabosek hurrengo aste eta hilabeteetan liburuaren kari antolatu duten egitarau bereziaren berri ere eman du. Hala, bisita gidatuak izango dira hainbat egunetan, euskaraz zein frantsesez, eta horrez gain ikasleak ere espero dituztela argitu du erakusketaren arduradunak. Bestalde, abenduaren 6an Danserie Ensemble konpainiak kontzertua eskainiko du Santizpiritako elizan, eta azaroaren 22an eta urtarrilaren 8an topaketak egingo dituzte, gaian adituak diren hizkuntzalari, idazle eta liburuzainen parte-hartzearekin.

Larunbateko inaugurazio-ekitaldian erakundeetako ordezkariak eta herritar ugari izan dira eta, amaieran, Euskal Museoko patio biribilean Mainer Bedaxagar kantariak Etxepareren liburuaren hainbat olerki eta pasarte abestu eta errezipatu ditu. Azkenik, bertaraturiko guztiek batera abestu dute: "Bertze jendek uste zuten, ezin eskriba zaiteien..."

Urko Apaolaza
Argia (2025/10/13)
(moldatua)

IRAKURGAIARI BURUZKO GALDERAK

1. **Azaldu zein generotako testua den irakurgaia, eta zein egoera komunikatibori dagokion: erabilera-eremua, hartzaileak eta egilearen helburua. Arrazoitu, labur bada ere, zure erantzuna. (1,5 puntu)**

Testu hau aldizkari batean argitaratutako kazetaritza-testua da: albistea (kazetaritzaren esparruko *erreportajea* dela erantzunez gero, ontzat emango da). Erabilera-eremua orokorra da, jeneralista, eta publiko zabalari zuzentzen zaio, informazioa emateko.

2. **Irakurgaiaren arabera, zein dira *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren berezitasunak? (1 puntu)**

Irakurgaiaren arabera, bi berezitasun aipa daitezke. Alde batetik, euskaraz argitaratutako lehenengo liburua da *Linguae Vasconum Primitiae*. Beste alde batetik, jatorrizko (1545eko) edizioaren ale bakar bat ezagutzen da: Frantziako Biblioteka Nazionalean gordetzen dena eta orain Baionara ekarri dena.

3. **Azaldu zer-nolako balioa eman zion liburuari Jean-Marc Chatelainei bere aurkezpen-hitzaldian. (1 puntu)**

Jean-Marc Chatelainen arabera, liburuak baietsi egiten du euskarak hizkuntza literarioaren maila duela, bai eta izateko arrazoi osoa zuela ere.

4. **Erakusketa hau aintzat hartuta, zenbat aldiz ekarri dute guztira Etxepareren liburua Euskal Herrira? Eman zehaztasunak. (1 puntu)**

Bi aldiz guztira. Lehenik, 2011n, EAEko Eusko Legebiltzarrera ekarri zen. Bigarrenik, orain ekarri da berriz, Baionako Euskal Museoko erakusketara.

5. ***Linguae Vasconum Primitiae*aren jatorrizko aleaz gain, zer gehiago ikus daiteke Baionako erakusketan Etxepareren lanari loturik? (1 puntu)**

Bi gauza. Alde batetik, *Linguae Vasconum Primitiae* lanaren beraren edizio digital bat, liburua orrialdez orrialde ikusteko aukera ematen duena. Beste alde batetik, Baionako Mediatekak utzitako beste liburu bat, garaia hobeto ulertzeko lagungarri dena.

6. **Testuaren arabera, liburua ikusteko beharrezkoa al da bisita gidatuetan izena ematea? (1 puntu)**

Ez, testuan ez da esaten liburua ikusteko bisita gidatuetan izena ematea beharrezkoa denik.

7. Eman esaldi hauek beste era batera, esanahia mantenduz. Horretarako, esaldi bakoitzaren alboan ageri den elementua erabili behar duzu. (1,5 puntu)

- (a) “Nahiz eta aldi baterako den, liburuaren ale bakarra Euskal Herrira ekarri dute”.
- (b) “Zuek nik baino hobe dakizue zerk egiten duen baliotsu liburu hau; izan ere, nik, tamalez, ez dut euskara menderatzen”.
- (c) “Adituen arabera, liburuak euskararen historian mugarri bat ezarri zuen”.
- (d) “Etxeparek liburuan bertan aitortzen duenez, euskara “mundu guzira” zabaltzeko idatzi zuen, asmatu berria zen inprentaren laguntzaz”.
- (e) “zuzenbidearen eta ohituren gaineko liburua da, eta gaineko testuingurua hobeto ulertzen laguntzen du”.

8. Eman hitz hauen sinonimoak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (1 puntu)

Hitza	Sinonimoa
<i>olerki</i>	<i>poema, neurtitz...</i>
<i>zabalik</i>	<i>irekirik, irekita...</i>
<i>areto</i>	<i>gela, sala...</i>
<i>hala nola</i>	<i>adibidez, esate baterako...</i>

9. Eman hitz hauen antonimoak. (1 puntu)

Hitza	Antonimoa
<i>gertu</i>	<i>urrun, urruti...</i>
<i>tamalez</i>	<i>zorionez, zorionean...</i>
<i>ezagun</i>	<i>ezezagun, ezagungabe...</i>
<i>aditu</i>	<i>ezjakin, eskolagabe, ezikasi...</i>